


BasHerri kontsumo talderako IKT egitura

Dokumentu hau aitzbitarte.wordpress.com-eko <http://aitzbitarte.files.wordpress.com/2011/10/infoegitura.pdf> helbidean deskarga zenezake.



OHARRA: Hitzaren gainean klik eginez informazio gehigarria ikusiko duzu. Azalpen gehigarriko Hasierako Eskemara itzuli klikatuz puntu honetara itzuliko zara.

BasHerri kontsumo talderako IKT egitura



Taldearen **kontu oinarria** litzateke. Gainontzeko **tresnak sortzerakoan** erabiliko den oinarrizko posta. **Talde kanpotik posta jasotzeko** erabiliko da: BasHerri taldeekin edota taldean interesa dutenekin lotzeko tresna. Erregistroa doanekoa da, baina, erregistratzean taldekide baten posta pertsonala eskatzen du. Pasahitza taldeko arduradunen artean geratzea aholkagarria da. **Euskarazko** interfazea badu. Ezarpenetik aldatzen da (configuración)

Hasiera-hasieran talde barruko komunikaziorako balio badezake ere, aurrerago, Google Groups-ez ordezkatu. Gmailekiko komunikazioak egitura bertikala eta zentrala erabiltzen baitu eta Groups guztiz horizontala eta zabala, taldekiduguztiekin komunikatzeko aukera du.

Erregistratzeko: <http://mail.google.com/mail?hl=eu>

Tutoriala: [ikusi hemen](#)

[Hasierako eskemara itzuli](#)



WORDPRESS

Bloga edo **egunkaria** taldearen **berriak argitaratzeko gunea** da. Bertan testua, irudiak, audioa, bideoa... argitara eman genitzake; post edo berrien bidez.

Idazteaz gain, idatzitakoa **komentatzeko aukera** dago, eztabaida txikiak sortzeko aukera. Bai eta interesgarriak izan daitezkeen beste web orrietara eta kontakturako **loturak jarri**.

Plataforma asko daude: [nireblog](#), [blogger](#), [typepad](#), [blog](#), [blogspot](#)... baina gure kasuan [wordpress](#) aholkatuko nuke, Bashherri gunea bertan dagoelako, **interfazea Euskaraz** jar daitekeelako eta doanekoen artean osatuenetako eta erabilerraza delako.

Bi bertsio ditu [wordpress.org](#) eta [wordpress.com](#). [wordpress.org](#) bertsioa, deskargatu eta zerbitzari (hosting) batean instalatu behar da. Alojamentua ordaindu behar izaten da eta ezagutza informatiko zenbait eskatzen ditu.

[wordpress.com](#) bertsioa ez da deskargatzen interneten zuzenean dabil. Hau da **gehiengoa erabiltzen ari garen bertsioa**.

[wordpress.com](#) bertsioa oso erabilgarria da, esan bezala testua, irudiak, audioa, bideoa, loturak, kategoriak, etiketak... txerta daitezke. **Aide txar nabarmenena flash** moduko (swf) artxiboak nola **ezin kapsulatu**. Org bertsioan pluning-ak instala daitezke com bertsioan ez.

Badu orrialdeak modu publikoan jartzeko aukera, baino baita, modu **pribatuan** (edo pasahitzarekin). Atal honetan gure taldeko aktak eta datuak koka genitzake.

3 GB-ko biltegia du. Nahitaez galeria moduko irudi aurkezpenak egiteko bertan gorde behar da. Baina gainontzekoak tentuz erabiliko nuke erraz bete baiteke. Beste tresnak badira biltegi moduan ibiltzeko.

Erabiltzaile gisa nahi adina jarri daitezke, gutxienez **bizpahiru izatea komeni da**. Bada postaz bidalita publikatzeko aukera, baina momentuz testu soila publikatzea besterik ez dut lortu.

Erregistratzeko: <https://eu.wordpress.com/signup/>

Erregistratzean gmail posta jarri eta **erabiltzailea zein pasahitza bera erabili**.

Sarbidea: <http://eu.wordpress.com/>

Tutoriala: Ezer ezagutzen ez baduzu "Pasos Previos" atala ikustea gomendatzen dizut. Gainontzeko zalantzetarako "Curso básico" atala begiratu. Laguntza [ikusi hemen](#)
Euskaraz eginiko [tutorial laburra](#)

[Hasierako eskemara itzuli](#)

BasHerri kontsumo talderako IKT egitura



Behin taldea eratuta, eta taldekideen posta bilduta dugula, gmail-eko erabiltzaile eta pasahitza bera erabiliz erregistratu eta sartu. Sartu ondoren **taldea sortu** eta taldea sortzearekin bat **taldeko posta** emango digu. Itxura hau du taldea@googlegroups.com

Ezarpenetan “Envío de correo electrónico” aukeran hau aktibatatu.



Publicación en nombre del grupo

Permitir a los miembros del grupo enviar entradas en nombre de la dirección de correo

Edozein taldekidek goian aipatutako taldeko postara bidali edota jasotako mezua erantzuten badu, taldekide guztiek jasoko dute. Era horretara **komunikazio horizontala eta multidirekzionala** sortzen da **taldekide artean**.

Taldea sortuta, administrariak, taldekide bakoitzaren posta idatzi eta gonbidapena bidaltzen dio. Norbanako postan jasotzen den **gonbidapena onartzean taldean onartuta** geratzen da.

Ez du euskarazko interfazerik. Baina ez du gehiegi axolarik, konfiguratu eta gero ez baita bertara sartzen taldekide aldaketak egiteko ez bada.

Mezuak gure ohiko postan sortu eta jasoko ditugu @googlegroups.com taldeko helbidera idatzita.

Erregistro/sarbidea: <https://groups.google.com>

Tutoriala: [ikusi hemen](#)

[Hasierako eskemara itzuli](#)



Bereziki **bideoen gordelekua** da. Bideoak karga, **memoria**, **handiko artxiboak** izanik, gmaileko erabiltzaile eta pasahitza berarekin sotuko dugu youtube kontua eta bertara igo gure bideoak.

Formatu asko onartzen ditu: AVI, 3GP, MOV, MP4, MPEG, FLV, MKV...bideo kamerak, argazki kamerak, sakelakoek eta webcam-ek sortutako bideoak igo eta gorde litezke.

Bideoa igo ondoren editaia onartzen du: moztu, audioa aldatu, testu markak egin...

Blogean argitaratzeko bideoan azpian agertzen den partekatu (compartir) hitza sakatu eta bere partekatze helbidea kopiatu behar da.

Eta blogean honela idatzi:

[[youtube=partekatze.helbidea](#)]

Sarbidea: <http://www.youtube.com>

Tutoriala: [ikusi hemen](#)

[Hasierako eskemara itzuli](#)



2GB-eko biltegia da, 10,5 GB arte handitu litekeena. Bereziki **audioa zintzilikatze**ko erabili dut. [Goer](#) erabiltzea duzu beste aukera. Baina Dropbox-en audioaz gain, nahi dugun artxiboa gorde liteke (doc, pps, pdf, jpg, mp3, mp4...) Interesgarria da artxibo edo karpeta **konprimatuak** eta programa **exekutagarriak** zintzilikatze.

Igotako artxiboa edota karpeta guztiaren **linka lortu eta blogean txertatu** liteke URL moduan.

Audioa txertatzeko horrela idatzi: [[audio audioaren.linka](#)]

Erregistroa/sarbidea: <https://www.dropbox.com>

Tutoriala: [ikusi hemen](#)

[Hasierako eskemara itzuli](#)

BasHerri kontsumo talderako IKT egitura



Argazkien gordailu da Picasa. Momentu honeta eboluzioan dagoeba eta Google+ rekin bateratu dutena, baina oraindik ere picasatik sarrera badu. Sartzeko beraz <https://picasaweb.google.com> helbidea erabiliko dugu eta aurrekoetan bezala gmaileko erabiltzaile eta pasahitza erabili.

Argazkiak igo aurretik karga gutxitzea komeni da, 800x600 pixeleko tamainarekin nahikoa ondo ikus daitezke. Hau egiteko programa asko daude, hemen duzue bat: doako programa eta tutoriala, [Resizer](#).

Behin **argazkien tamaina egokitu eta igo** ondoren, karpeta ireki eta **acciones** botoian **propiedades del album aldatzea** komeni da. Azkeneko aukeran **visibilidad del album** aukeran **Limitado a cualquier usuario que reciba el enlace** aukera egin. Era horretara egoera sasi-pribatu batean gaude. Lotura ez duenak ezin du ikusi, lotura jaso duenak bai ordea. Eta non lortu lotura? Album edota argazki bakoitzaren eskuinaldean ageri den **enlazar a** aukeran.

Beste aukera Picasa programa deskargatu eta instalatzea da. [Descarga hemen](#) eta [tutoriala hemen](#).

[Hasierako eskemara itzuli](#)



Dokumentuen biltegia izateaz gain, dokumentuak **editatzeko aukera** ematen du. Oinarrian testu dokumentua, aurkezpena, kalkulu-orria dira erabilienak.

Hauetako sortzean garrantzitsua da nola konpartitzen diren. **Compartir** aukera aktibatzen dugunean **Quien tiene acceso** zerrendan lehen aukera ondo aukeratu: **cualquier usuario que reciba el enlace puede ver los elementos** aukera oso baliagarria da sasi-pribatu moduan geratzeko. Aukera hau aktibatuta, goialdean lotura bat ageri zaigu. Lotura hori blogean jarritz gero, **blogetik dokumentua ikus daiteke baina ez editatu**.


Editatzeko baimena eman nahi izanez gero, **banan-banan** posta sartu eta editatzeko baimena eman behar zaie kideei, **arduradunei adibidez**. Hauetako blogetik sartuta ere, editatzeko baimena izango dute google kontua aktibatua badute.

Dokumentuak, aktak adibidez, blogetik **ikusteko aukera taldekoei** eman nahi badiegu adibidez **blogeko orrialdeari pasahitza jarri** eta barrura sartzen direnak soilik ikusiko dute aktarako enlaze sasi-publikoa.

Sarbidea: <http://docs.google.com> Gmaileko usuario eta pasahitza bera erabili

Tutoriala: [ikusi hemen](#)

[Hasierako eskemara itzuli](#)



Badira beste makina tresna gehiago: [google calendar](#) taldearen gertaerak apuntatzeko egutegia (ordainketak noiz egin, bilerak noiz... postara abisatzeko aukera du), [google maps](#) otar eta bilera tokiak adierazteko, <http://pf.kizoa.com> argazki aurkezpenak egiteko, <http://www.eslvideo.com> bideo-galdetegiak prestatzeko, <http://issuu.com/> eta <http://es.scribd.com/> idatzi eta aurkezpenak aldizkari moduan argitaratzeko eta beste mila.

Garrantzitsua da, erabiltzen ditugun tresna hauek guztiak blogean **enkapsulatzeko aukera** edukitzea. Interneteko itsasoan galdu gabe,

bloga izango da nabigazioaren **iparrorratza** eta.

Lan horretan flash modukoan wordpress.com-ek onartzen ez dituenek, betiko errezeta har genezake hauetarako, Imp Pant teklatuko botoian bidez intereseko irudia kapturatu, [gimp](#) programaz editatu, blogean sartu eta irudia flash objektuarekin binkulatu.

[Hasierako eskemara itzuli](#)